

Erriberriko Antzerki Jaialdia 2024

UZTAILAK 19
ABUZTUAK 4

Egonaldiak

ANTOLATZAILEAK

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



 FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA

 cultura navarra.es

LAGUNTZAILEAK

 Ayuntamiento de Olite Erriberriko Udala

 Ayuntamiento de Tafalla Tafallako Udala

 Ayuntamiento de Beire Beireko Udala

 Ayuntamiento de San Martín de Unx San Martín Unxeko Udala

 Ayuntamiento de Píñolas Píñolas Udala

Erriberriko Antzerki Jaialdiak bi lanerako egonaldi edo ikerketarako laborategi proposatzen ditu Nafarroako artista zein konpainia profesionalak aurkeztutako proiektu artistikoendako.

NORI ZUZENDUA

Nafarroako arte eszenikoen egile edota konpainia profesionalak aurkezten ahalko dira.

Bi kategoria ezartzen dira:

• **Egile edo konpainia gazteetzako egonaldia, kide gazteak dituztenak (30 urtetik beharagoak) eta beren ibilbide profesionala hasten ari direnak.** Onuradunek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)¹ aurkeztu beharko dute, eta Nafarroako Foru Komunitatean egoitza dutela egiaztatu.

• **Ibilbide profesional sendotua duten egile zein konpainientzako egonaldia.** Eskabidea aurkezteko unean egiaztatu beharko dute Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda daudela, eta egiaztatu beharko dute Nafarroako Foru Komunitatean dutela egoitza.

¹ Ekonomia-Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) epigrafe hauetako edozeinetan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (dagokion udalak emana):

-1. atala (enpresa-jarduerak): 965 taldea.
-2. atala (jarduera profesionalak): 85. multzoa.
-3. atala (jarduera artistikoak): 1., 2. edo 3. taldeak.

PROIEKTUEN BALDINTZAK

Arte eszenikoetako sormen artistikoaren edozein alderdirekin lotuak dauden proiektuak aurkezten ahalko dira.

Baloratuko da proiektuak hezkuntzarako atal bat edo jendearekiko bitartekaritza-programa bat jasotzea, eta egindako lana konpainiak nahi duen formatuan aurkeztea (konferentzia, bideoa, aurkezpena, entsegu irekia eta abar), Erriberriko 2024ko Antzerki Jaialdiaren programaren barruan.

EGONALDIEN BALDINTZAK

→ Egonaldiaren iraupena

Uztailaren 1etik abuztuaren 4ra arte, biak barne.

→ Egonaldiaren tokia

Egonaldi bat Tafallan egingen da, eta bestea Beiren. Jaialdiak erabakiko du bi egonaldiak zer tokitan egingen diren eta lanerako espazio bat eskainiko du, herri bakoitzeko udalak utzitako lokal batean, zehazten den ordutegian. Egonaldi bakoitzaren sormen prozesuaren irekierak egingo dira Tafallan, Beiren eta Erriberrin, zehaztu beharreko tokian eta egunean.

→ Egonaldiaren zenbatekoa

Egonaldi bakoitzak **6.500 euroko** gehieneko zuzkidura izanen du (BEZa barne), eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak emanen du diru hori.

Jarduera bukatzen denean emanen zaizkio bi kopuru horiek konpainiari; horretarako, 2024ko abuztuaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte egindako gastuak zehaztu eta justifikatzen dituzten fakturak eta txostena.

Onartzen diren gastuak gastu zuzenei dagozkienak dira (zerbitzuen kontratazioa, alokairuak, profesionalak, gastu sozialak, konpainiaren egoitzatik Tafalla, Beire edo Erriberrirako bidaiak, ostatua eta mantenua). Ez dira onartuko, salbuespenak salbuespen (prezioagatiko justifikazioa), Tafalla, Beire edo Erriberriz kanpoko establezimenduetan egindako ostatu eta mantenu gastuen fakturak, ezta ere –egonaldiak irauten duen bitartean– konpainiako kideak beren etxeetatik egonaldiaren herrira joateko eta handik itzultzeko behar diren bidaietz kanpoko beste joan-etorriarik.

Justifikatzeko, aurkeztutako fakturek zalantzarik gabe erantzun beharko diote egindako jarduerari, eta haien data proiektua hautatu zeneko eguna baino geroagokoa izan beharko da.

PROIEKTUA AURKEZTEKO EPEAK ETA MODUA

Proiektuak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 9an hasi, eta apirilaren 30ean bukatuko da.

Proiektuak eta eskatutako gainerako dokumentuak programasydifusion@navarra.es helbidera mezu elektronikoa bidalita aurkeztu beharko dira, gaian hau jarrita: Erriberriko 2024ko egonaldien deialdia.

Proiektua PDF artxibategi erantsi batean aurkeztu behar da. Egileak edo konpainiaren arduradunak behar bezala sinatuta egon beharko da, eta honako datu hauek eduki:

- Sortzailearen identifikazio-datuak –izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa– eta zer modalitatetara aurkeztu den (gazteen/gorabidean dauden egonaldia edo profesionalki finkatutako egonaldia).
- Proiektua aurkeztu duen konpainiaren izena eta harremanetarako datuak.
- Proiektua aurkeztu duen pertsonaren edo konpainiaren curriculum.
- Egin nahi den lanaren sinopsia eta helburua.
- Lantaldearen osaera.
- Taldearen edo parte-hartzaileen argazkia, proiektua zabaldu ahal izateko.
- Proiektuaren arduraduna edo zuzendaria edo koordinatzailea.
- Lan-kronograma.
- Aurrekontu zehaztua.
- Proiektua aurkeztu duen konpainia edo profesionalak EJZn duen inskripzioaren kopia. Dokumentu hori geroago aurkeztu ahal izango da, egoitzaren esleipena jakinarazi ondoren, gazte/gorabidean dauden egonaldiaren kasuan.
- Hala badagokio, hezkuntza-atala edo publikoarekiko bitartekaritza-programa.

Hautatzen diren konpainiek, egonaldia bukatu ondoren eta 2024ko abuztuaren 31 baino lehen, memoria bat idatzi beharko dute. Idazki horretan, obraren garapena eta egoera jasoko dira, baita obrak izan dezakeen etorkizuna eta esperientziaren balorazio bat ere. Gainera, egonaldien kargura egindako gastuei buruzko fakturak aurkeztu beharko dituzte aipatutako data baino lehen.

Antolatutako bi kategorietako baten egonaldia betetzen ez bada, aurkeztutako proiekturik ez dagoelako edo 5. atalean eten-nota pasatzen ez delako, bi kategorietako edozeinetara aurkeztutako bigarren proiektu baloratuenak beteko du.

BALORAZIOA ETA EGONALDIEN HAUTAKETA

Egonaldietarako proiektuen hautaketa batzorde batek egingen du. Batzorde haren buruak jaialdiaren zuzendari artistikoak izanen dira (**María Goiricelaya** eta **Ane Pikaza**), eta hauek, batzordeko kideak:

- Kultur Ekintza Zerbitzuko zuzendaria, **Lorenzo García Echegoyen**
- Programa Artistikoen eta Hedapenaren Ataleko burua, **Marisol Martínez Caspe**
- Foru Komunitateko arte eszenikoen arloan entzute handiko bi aditu.
- Idazkaria: Kultur Ekintza Zerbitzuko goi mailako teknikari bat.

Aurkeztu diren proiektuen egokitasuna baloratuko du batzordeak, irizpide hauen arabera:

- Proiektuaren kalitatea eta deialdiaren xedera, helburura eta esparrura egokitzea (gehienez 50 puntu). Proiektuek gutxienez 25 puntu lortu beharko dituzte atal honetan hautatuak izateko.
- Talde artistikoaren eta teknikoaren egokitasuna (gehienez 10 puntu). Gazteen egonaldiaren kasuan, eskatzaileen aurretiko prestakuntza baloratuko da eta profesionalen egonaldiaren kasuan, ibilbidea.
- Proiektuaren originaltasuna eta etorkizunean eszenaratzeko bideragarritasuna (gehienez 20 puntu).
- Hurrengo denboraldian Foru Komunitateko beste espazio batzuetan ekoizteko eta proiektatzeko aukerak (gehienez 20 puntu).

Erabakia pertsona eta konpainia interesdun guztiei jakinaraziko zaie 2024ko maiatzaren 9tik aurrera, proiektua aurkeztean emandako helbide elektronikoaren bidez.



Harremanetarako

AMALIA JIMÉNEZ ATIENZA

Programa Artistikoen eta Hedapenaren Ataleko
Goi mailako Teknikaria

E-posta: ajimenea@navarra.es